



## TRANSCRIPCIÓN LITERAL DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA COMISIÓN DE MUJER Y JUVENTUD EL DÍA 14 DE MAYO DE 2008.

*Se abre la sesión a las nueve horas y treinta y siete minutos.*

La **PRESIDENTA** (Auzmendi Munduate): Bueno, egun on guztioi. Emakumea eta Gazteria batzordeari hasiera emango diogu. Lehenengo puntu moduan "2008ko maiatzaren 5ean egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea". Inork ez baldin badauka ezer esateko onetsita gelditzen da.

Gai-zerrendako bigarren puntu moduan "Legebiltzarraren adierazpena, Colombiako...

La Sra. **GARRIDO KNÖRR**: Presidenta, este grupo querría plantear una cuestión por orden.

La **PRESIDENTA**: (...) zerrendarekin jarraituko dut eta Legebiltzarraren adierazpena, Colombiako Organización Femenina Popular elkartearen (...) izateko" Adierazpena adosteko... ez da egon adostasunik, orduan erretiratuta gelditzen da bigarren puntu hau.

Hirugarren puntu bezala "Gazteria eta Gizarte Ekintzarako zuzendariaren agerraldia, Nerea Alzola Álvarez, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egindako eskariari jarraituz, batzordeak eskatuta, 2007ko abenduan eman zen Gazteen legearen gaineko zirriborroaz informatzeko". Eskaera... atzeratzeko eskaera bat egon da puntu honen inguruan eta nik uste dut lehenik eta behin legelariaren zehaztasun edo adierazpen teknikoa entzun behar ditugula gai honen inguruan, atzerapen honen inguruan.





La Sra. **GARRIDO KNÖRR**: Sí, señora presidenta. Pero este grupo que ha sido el... el que es el autor de la iniciativa le gustaría explicar las razones por las que propone la posposición de este punto, al igual que el punto quinto del orden del día de la comisión. Y las razones son las siguientes. Ante el cruel atentado de la banda terrorista hoy contra el cuartel de la Guardia Civil en el que ha sido asesinada una persona y hay cuatro heridos, este grupo solicita la condena de este cruel asesinato por parte de esta comisión antes de seguir con el debate de esta comisión. Y también proponemos, dado que es un atentado cruel en el que ha fallecido, ha sido asesinada una persona con cuatro heridos, y además a 17 kilómetros de este Parlamento en el que estamos, representamos a todos los vascos, consideramos conveniente que se posponga esta comisión para la semana que viene o para otro día. Y en ese sentido este partido, el Partido Popular, el grupo parlamentario Popular, ha solicitado que se pospongan los dos puntos que le corresponden a este grupo, que son el punto tercero, en el que se solicitaba la comparecencia del Director de Juventud y Acción Comunitaria, y el punto quinto, que es un debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo Popular Vasco, relativa a la revisión del protocolo en materia de protección de los casos de violencia de género.

La **PRESIDENTA**: Bai. Atzerapenaren inguruan Araudiaren arabera... jarraitu beharreko pausuen inguruan hitz egiteko atsedenaldi bat egingo dugu eta denon artean hitz egingo dugu.

*Se suspende la sesión a las nueve horas y cuarenta y un minutos.*

Comienzo de la cinta nº 2(10:23)

*Se reanuda la sesión a las diez horas y veintitrés minutos.*

La **PRESIDENTA EN FUNCIONES** (Ezenarro Egurbide): ... gaurko batzordeari. Eta hemen Alderdi Popularrak eskatu duen bezala... *(Murmullo.)* Ez. Jarraitu egingo dugu. Lasa andrea, jarraitu egingo dugu. Bueno, esaten



nuen Alderdi Popularreko ordezkariak eskatu duten bezala "receso"aren ondoren adostasun batera heldu gara talde politiko guztiak Ezker Abertzaleak taldea ezik. Hauek inhibititu egiten dira prozesu honetatik. Baina beste guztion artean atentatuaren gaitzezpenerako testu bat adostu. Eta irakurri egingo dut. Erderaz irakurriko dut. "La Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco muestra su más absoluta condena al atentado producido en la madrugada de hoy contra el cuartel de la Guardia Civil de Legutiano (Araba), en el que ha resultado asesinado el guardia civil Juan Manuel Piñuel Villedón y resultado heridas otras cuatro personas. La Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco muestra su cercanía, su pésame y solidaridad a las familias, compañeros y allegados de las víctimas de este cruel atentado". Eta hau horrela eginik orain batzordearekin jarraituko dugu. Eta berriro ere presidentzia dagokionari pasatuko diot hirugarren... edo laugarren puntua eztabaidatzen jarraitzeko.

La Sra. **GARRIDO KNÖRR**: Sí. Un momento, señora presidenta en funciones, un segundo. ¿Habría algún problema en que los grupos que expresamente hemos suscrito esa declaración de condena del atentado la firmáramos expresamente? Está claro, pero bueno, porque conste la firma, dado que hay un grupo que no lo ha condenado, que se firme. Y lo que sí anuncia este grupo que dado que la comisión está presidida por un grupo que no ha condenado este atentado, y entendíamos que era lo mínimo que tiene que haber para proseguir la actividad en este Parlamento y en esta cámara, este grupo anuncia que no va... que no... y en coherencia a que ha pedido también la posposición de sus dos puntos, que no va a seguir en los debates que se van a producir en la comisión.

La Sra. **LETURIONDO ARANZAMENDI**: Laura, quiere decir que la enmienda que habéis propuesto la retiráis, la mantenéis o cómo está esto.

La Sra. **GARRIDO KNÖRR**: No, obviamente, si no voy a estar para defender pues se supone que claro, que decae, ¿no? (...) decae. O sea entendemos eso, que presidida esta comisión por quien está presidida y no habiendo una condena de este atentado este partido se va... el Partido Popular se va a ausentar de la comisión. Y además habíamos pedido también que se pospusieran... pero bueno, ya hemos hablado al respecto, y, por lo tanto, este grupo como ha pospuesto sus dos puntos, pues se ausenta del



debate de la única iniciativa que queda sobre la mesa, que es la iniciativa del Partido Socialista sobre la visibilidad lésbica.

La **PRESIDENTA EN FUNCIONES**: Yo creo que respecto al primer punto no hay problema en que podamos firmar aquellos partidos que, bueno, hemos... bueno, suscrito este texto. Lo que pasa que habrá que pasar y...

La Sra. **¿GARRIDO KNÖRR?**: Sí. Lo paso yo ahora.

La **PRESIDENTA EN FUNCIONES**: Muy bien. Hasta luego.

La **PRESIDENTA** (Auzmendi Munduate): Emakume eta Gazteria Batzordearekin jarraitzen dugu. Laugarren puntua: "Euskal Sozialistak taldeak egindako legez besteko proposamena, lesbianen ikusgaitasunari buruzkoa. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketaren eztabaida eta behin betiko ebazpena". Besterik gabe Sozialista taldeko Leturiondo andreak dauka hitza.

La Sra. **LETURIONDO ARANZAMENDI**: Eskerrik asko, presidentia andrea.

A ver, ekimen hau sinboliko mailakoa da, ez dut neurri berezirik eskatzen ezta ez eperik ere. Honen helburua Legebiltzar honetako Emakumearen Batzorde honek gai honi buruz ozenki hausnarketa egitea besterik ez da, kontzientziak astintzea eta ohararaztea emakume guztiak ordezkatu nahi ditugula, batez ere zailtasunak dituztenak eta bazterkeriak jasaten dutenak. Jenero diskriminazio barruan badago gehitze bat lesbianena, emakumeen arteko kate mailarik ahulena.

Ez dut esango gizonezko homosexualek erraza izan dutenik, ez litzatekeelako justua izango. Pasa behar izan dituzten, bueno, errepresioaren arazoak jabe garelako, baina hauek lortu duten agergarritasunetik oso urrun dauden emakumeak. Ez da oraingo gauza, ez, ez eta hemengo, aspalditik dator eta orokorra da. Aintzinean erre egiten zituzten sorginak zirelakoan. Sustraiaren mentalitate matxistaren muturrean dagoen zerbait da, ugalketarako balio ez duten emakumeak ezabatu behar direla.



Aspaldiko kontua dirudi, baina, tamalez, oraindik ere begi txarrez ikusten dira eta bazterkeriarik ez jasateko ezkutatu beharrean aurkitzen dira gaizkile batzuk balira bezala. Muinean ezberdinari gorrotoa dago eta minoriak anormaltasunarekin lotzeko joera zaharrarekin. Eta, bukatzeko, biziki gomendatzen dizuedan liburu honetatik testigantza hunkigarri bat irakurriko dizuet, oso txikia da, e?, oso testu laburra.

"A pesar de todo yo dije que era lesbiana, sintiéndome sola y muy asustada, sabiendo que mi madre lloraría cuando se publicase en los periódicos y que mi hermana mayor, la abogada, y muchas más mujeres del barrio opinarían que decir la verdad en este punto no era una buena política, que eso perjudicaba nuestra imagen. Yo sabía todo eso, pero aguanté sola y sentí que estaba saltando desde un acantilado". Eskerrik asko zuen arretagatik.

La **PRESIDENTA**: Mila esker, Leturiondo andrea. Ondoren taldeen txanda zabalduz Aralar taldeko Ezenarro andreak dauka hitza.

La Sra. **EZENARRO EGURBIDE**: Bai, eskerrik asko, presidenta andrea.

Bueno, bakarrik esateko alde egingo dugula eta, gainera, iruditzen zaigula oso beharrezkoa den ekimen bat, hain justu bat egiten dute esan duzun guztiarekin eta ez dut errepikatuko, baina egia da pertsona hauek, bada, pasa behar izaten dutena oraindik ere, bueno, beste gizonezkoen arteko harremana baino askoz ere ezkutatuagoa dela eta, gainera, askoz ere, bueno, gizartean oraindik askoz ere gaizkiago ikusia dagoen, bueno, istorio bat dela.

Beraz, behar-beharrezkoa bisibilizatzeko kanpainak egitea, ekimenak egitea, eta esan duzun hortan iruditzen zait Alderdi Sozialistak egin duen ekimena oso, oso oportunoa izan da. Besterik ez.

La **PRESIDENTA**: (...) Ezenarro andrea. Ondoren Eusko Alkartasunako Lasa andreak dauka hitza.



La Sra. **LASA ARTEAGA**: Bai, Eusko Alkartasunaren naizenean ere, esan babestu egingo dugula, giza eskubide guztion alde dugunok honetan ere alde egin behar dugulako.

Emendakina erretiratu da, ez noa ezer aipatzera, baina nik uste dut gauza hauetan edo bai edo ez, ez dagoela erdibideko jarrerarik. Eta ez da lanean jarraitu behar sentibilizatzeko eta horrelako gauzak, edo zaude pertsonak errespetatzean beren orientazio afektibo, sexuala zein den kontuan hartu gabe edo ez zaude. Ez zaigu iruditzen, esan den bezala, garai hauetan (...) eta pasa diren honetan horrelako gauzetan sar gaitzkeenik, ez?

Azken batean egia delako, araudian gauzak aurreratu dira eta teorikoki, behintzat gure gizarte honetan, sexu aukera dela eta diskriminaziorik eman ez eta, alderantziz, benetako berdintasun erreala eman dadin badaukagu zer egitekorik. Teorian dena dago, formalki legeak babesten dituzte heterosexualak ez diren pertsonak, baina gero errealitatean, eta Esozik irakurri duen bezala, testigantza asko dago hemen zein beste hainbat lekutan egunerokotasuna ezberdina da.

Nik aipatu nahiko nuke homosexualitatearen gauza berez oraindik arazoak ematen baldin baditu ere, bada, sozialki ez daudelako berdintasun guztiak lortuta, bada, esan den bezala, lesbianen kasuan askoz ere gehiago, ez? Eta oraindik berdintasun hori eta nolabaiteko asuntzio hori, naturaltasun osoz asumitze hori oraindik nik uste dut zailago dagoela. Eta, gainera, testuan txostenean bertan ere izaten da, homosexual gizonezko batek lehenago esaten duela publikoki lesbiana batek egiten duena baino, ez?

Nik ere irakurriko dut gauza bat, txostenean agertzen dena. Eta da bisibilitatea amaierarik gabe, gutxi gorabehera, ideia da, bisibilitatea amaierarik gabe borroka bat bezala ikusten dela, bisibilitatearen (...) borroka. Etengabe erronka bat bihurtzen bada ere, bada, nekea ere sortzen duena beti eta beti eta beti XXI.gizaldi honetan. Nik gogoratu nahi dut, gaur maiatzak 14 da, hemendik hiru egunetan, bueno, hemendik hiru egunetara, 17an, homofobia, transfobiaren aurkako nazioarteko eguna izendatu nahi da hainbat udaletan, nirean esaterako sartu dugu baita ere lesbofobiaren aurkako eguna ere izendatu dadila. Eta, gainera, Legebiltzar honetan ere onartu zen, uste dut orain dela pare bat urte, Nazio Batuek onar dezaten maiatzak 17 homofobia, transfobia eta, diodan bezala, guk sartu dugu baita ere lesbofobiaren aurkako eguna ere sartu beharko litzatekeela.



Eta baita ere aipatzen da, eta ez dugu osatzera joan behar, denak bizi ginen, 90 arte Osasunaren Nazioarteko Erakundeak ere, bada, gaixotasun mental gisa ulertzen zuela homosexualitatea. Iruditzen zait izugarria eta benetan, bada, (...) puntan jartzekoa. Horregatikan iruditzen zait gai hauetan sinbolikoki eta tramite hutseko gauzak ez baino hitz egin behar dela, zergatikan gauzei hitza jartzeak ere bisibilizatzen ditu, bada, gauzak, ez? Orduan, bueno, hori aipamen bat egin nahiko nuke.

Aipatzen dira hainbat neurri, bada, komunikabideetan erreferenteak edukitzea, aipatzen da hezkuntzaren garrantzia, aipatzen da koordinazioa erakunde ezberdinen artean, aipatzen da baita ere enpresa munduan praktika honen gida eta abar eta abar... Beraz, uste dut zuk egin duzun proposamena babestuko dugu, nola ez, komunikabideetan eta ematea. Nik uste dut gehiago ere egin beharko litzatekeela, inplikazio bat koordinazioan aurrera egiteko, erakundeek honetan ere ezin dutelako beren erantzukizun partea ekidin, nahiz eta egia den gizarte guztiaren lan bat dela.

Eta bai aipatu nahiko nuke nolabaiteko sentsazio bat, ez? Eta nik uste dut lesbianen munduan oso ohikoa dena, ez? Irakurtzen denean, (gainera, abesti bat ere badago) bi emakume, bada, lagunak izan daitezke eta abar... Iruditzen zait beti dela nahiko estalia dagoen zerbait, ez? Azken batean bisibilizatzeko hori ere zailtzen duelako, bada, adibidez, ezkonduak egotea, ama izatea... Azken batean dena estalia, lainoan bezala gelditzen da. Sentsazio hori eduki dut, ez? Ezkutua den zerbaiten istorio bat irakurtzen ari nintzela. Eta iruditzen zait, bada, bai, bisibilizatu egin behar dela eta bakoitza garen ezberdintasun guztiarekin, bada, onartu, diodan bezala, hau pertsonak errespetatzea baita, bai edo ez.

Eta guk baiezkoaren apustua egiten dugu. Mila esker.

La **PRESIDENTA**: Mila esker, Lasa andrea. Ondoren Ezker Abertzaleak taldeko Basterrika andreak dauka hitza.

La Sra. **BASTERRIKA UNANUE**: Bai, guk ere esan Sozialista taldeari bat egingo dugula berak ekarritako proposamenarekin.

Eta nolabait ere adierazi, bada, emakume hauek jasotzen duten bereizkeria bikoitza dela: bata emakumea izateagatik eta bestea homosexual



bezala kontsideratzen (...) bere burua. Baina horregatikan ikusten dugu ere inportantea bere bizitzaren egunerokotasunean normalki lesbianismoaren, bueno, bada, bizi izateko baldintzak txertatzeko, bada, neurriak ipini behar direla. Eta neurri horiek, nolabait, eraginkorrak izan ahal izateko uste dugu interesantea izango litzatekeela lesbianak eta beraiek sortutako elkarteekin elkarlanean sustatzen eta dihardutzeko ekimenak egitea, ez? Baina ados etorriko gara zuekin.

La **PRESIDENTA**: Mila esker, Basterrika andrea. Ondoren Euzko Abertzaleak taldeko González de Txabarri andreak dauka hitza.

La Sra. **GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA**: Bai, eskerrik asko, presidenta andrea.

Bueno, gure taldetik esateko baita ere babesa emango diogula Partido Sozialistak, Leturiondo andereak, aurkeztutako ekimen honi. Iruditzen zaigu, gainera, ondo planteatutako ekimena dela. Hau da gakoan ematen duela, hau da, azentua jarri behar den lekuan jartzen duela. Azken finean erreferente positibo falta bat dagoela, emakume homosexualengan bere lesbianismoa bizitza eguneroko bizitzan integratzeko, eta hor egin behar delako indarra, hau da, hori da zehatu behar dena, aldatu behar dena.

Partido Popularrak bazuen ekimen bat, nahiz eta orain bertan behera gelditu den, guretzako egokia ez zena, hau da, ez zegoen behar den bezala planteatuta, behar zen terminoetan eta hau bai. Gure alderdiaren, gure taldearen iritzia da homosexualitatea gizartea bezain zaharra dela, momentu bakoitzeko sineskeria, printzipio baloreak, mania persekutorio propioak ere baztertu egin dute, gaixotasun bihurtu eta asko sufritarazi hau, kondizio honetan zeudenak, baina hemen emakumeek ere badugu gure atzerapena. Ekimenean esaten den bezala, berdintasuna hemen ere ailegatzeko dago, homosexualek, gizonak ez dute erraza izan, proposatzaileak esan duen bezala, bere borroka egin behar izan dute. Baina hor ezkutuan gelditu dira emakumeak, azken finean homosexualitatea aipatzen denean gizonen homosexualitatea etortzen delako denen burura, erreferentzi positibo hori...

Fin cinta n.º 2

Comienzo de la cinta n.º 3(10:38)



... baina hor ezkutuan gelditu dira emakumeak, azken finean homosexualitatea aipatzen denean gizonen homosexualitatea etortzen delako denen burura, erreferentzi positibo hori nolabait ari da, bueno, bere bidea egiten eta emakumeena, berriz, ez. Emakumeena hor geldituta dago, hor egiten du indarra Alderdi Sozialistak bere ekimen hau planteatzen duenean, azken finean erreferentzi positibo sistema hori egin behar da plazarazi, bada, jende guztiak gauza hori normal bezala ikusi dezaten, umeek ere, bada, bere amak lesbianak direla esan ahal izan dezaten eskolan eta hori onartua izan dadin.

Beraz, Partido Sozialista zoriondu ondo planteatuta dagoelako gure ustez eta gure babesa eskaini. Mila esker.

La **PRESIDENTA**: Mila esker, González de Txabarri andrea. Eta ondoren bigarren txanda bat irekiko dugu txikienetik handienera. Aralar taldeak ez du parterik hartuko. ¡Ay! Barkatu, barkatu. Sozialista taldeak dauka hitza. Leturiondo andrea, zurea da hitza.

La Sra. **LETURIONDO ARANZAMENDI**: Ez. Bakar bakarrikan eskertzeko talde guztien jarrera. Ez nuen gutxiago espero. *(Risas.)* Ja ziur aurrez banekien horrela izango zela, baina eskerrik asko.

La **PRESIDENTA**: Mila esker, Leturiondo andrea. Aralar taldeak ez du parte hartuko. Eusko Alkartasuna ere ez. Ezker Abertzaleak ere ez. Euzko Abertzaleak ere ez. Ondorioz, ba, ekimena bozkatzea jarraituko dugu. Aldekoak, ekimenaren aldekoak. (Pausa.)

*Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, ; a favor, ; en contra, ; abstenciones, .*

La **PRESIDENTA**: Bueno, ba, erabateko adostasuna dago. Orduan besterik gabe seigarren puntuarekin jarraituko dugu: "Eskariak eta galderak".



Norbaitek zer bait esateko baldin badauka... Ba, besterik gabe amaituzat emango dugu batzordea. Mila esker.

*Se levanta la sesión a las diez horas y treinta y nueve minutos.*

